Bestelako Xedapenak

URAREN EUSKAL AGENTZIA

6424

HUTSEN ZUZENKETA, ondoko ebazpenaren eranskinarena: «Ebazpena, 2009ko urtarrilaren 30ekoa, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiarena. Honen bidez, lanpostu-zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzen da».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.b) artikuluan xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan egindako hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Aipatutakoen moduko akatsak aurkitu dira lanpostu-zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea xedatzen duen Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren 2009ko urtarrilaren 30eko Ebazpenean (2009ko otsailaren 23ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 37. zenbakia); hori dela-eta, ondoren egiten da dagokien zuzenketa.

Ebazpenaren eranskinean, 2009/975 (24/29) orrialdean, titulazio akademikoen deskribapenari dagokionez, ondokoa erantsi behar da:

Otras Disposiciones

AGENCIA VASCA DEL AGUA

6424

CORRECCIÓN DE ERRORES del anexo de la Resolución de 30 de enero de 2009, del Director General de la Agencia Vasca del Agua, por la que se ordena la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la relación de puestos de trabajo.

El artículo 18.2.b) del Decreto 217/2008, de 23 de diciembre, del Boletín Oficial del País Vasco, establece que los meros errores u omisiones en el texto remitido para su publicación que se infieran claramente del contexto y no constituyan modificación o alteración del sentido de los documentos, pero cuya rectificación se juzgue conveniente para evitar posibles confusiones, se corregirán por la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, a instancia del órgano que haya ordenado la publicación del texto.

Advertidos errores de dicha índole en la Resolución de 30 de enero de 2009, del Director General de la Agencia Vasca del Agua, por la que se ordena la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la relación de puestos de trabajo, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 37, de 23 de febrero de 2009, se transcribe a continuación la oportuna rectificación:

En el anexo de la resolución, página 2009/975 (24/29), se debe añadir lo siguiente en cuanto a la descripción de las titulaciones académicas:

700019	Kazetaritzan Liz.	*Lic. Periodismo.*
700021	Publizitatean eta Harreman Publikoetan Liz.	*Lic. Publicidad y RRPP.*
700022	Ikus-entzunezko komunikazioan Liz.	*Lic. Comunicación Audiovisual*

Era berean, 2009/975 (29/29) orrialdean, berariazko ezagutzei dagozkien kodeen deskribapenari dagokionez, ondokoa erantsi behar da:

Así mismo, en la página 2009/975 (29/29), se debe añadir lo siguiente en cuanto a la descripción de las claves correspondientes a conocimientos específicos:

764	Kontratazio administratiboaren ezagutza.	*Conocimientos de contratación administrativa.*